



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Miren Illarregui Belarra
Pello Ariztegi Etxepeteleku
Juana María Altxu Juanikorena
María Larretxea Etxeberria
José María Alzuri Vértiz
Ainhoa Bereau Alchu

2020ko abenduaren 30ean, 15:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. UDAL HIRIGINTZA PLANAREN ARAU SUBSIDIARIOEN EGITURAZKO ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.

Aztertu da Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa (SG-7), 2 poligonoko 209. partzelari dagokiona, urbanizagarria den lurzorua handitzeko. Iturengo Udala da espedientearen sustatzailea. Arkitekto aholkularien txostenak kontuan hartuta eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 78 eta 77. artikuluekin bat etorritz, **aho batez** erabaki da:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea.

2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, jendaurrean egon dadin hilabete bateko epean.

3. Espedientea igortzea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernuko departamentuen eskumenetako gaiez.

4. Erabaki hau jakinaraztea aldaketaren eremuan sarturik dauden lurren jabe guztiei.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

2. 2. POLIGONOKO 99. LURZATIAREN PEAU, BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA, KUDEAKETA HIRIGINTZA HITZARMEN ETA URBANIZAZIO PROIEKTUA: HASIERAKO ONESPENA.

2. poligonoko 99. lurzatiaren PEAU, Birpartzelazio Proiektua, Kudeaketa Hirigintza Hitzarmena eta Urbanizazio proiektua aurkeztu ditu Udalburuak. Aipaturikoek arkitekto aholkularien aldeko txostena jaso zuten. Arkitekto aholkularien txostena kontuan hartuta eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 25., 63., 72. eta 74. artikuluekin bat etorriz, Udalbatzak hurrengo **aho batez erabaki du**:

1.- 2. poligonoko 99. lurzatiaren PEAU, Birpartzelazio Proiektua, Kudeaketa Hirigintza Hitzarmena eta Urbanizazio Proiektua hasiera batean onartzea.

2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, jendaurrean egon dadin hilabete bateko epean.

3. Erabaki hau jakinaraztea interesatuei.

Eta bertzerik ezean, 16:50ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.